



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

UDAL PLENOA
Ez ohiko Bilkura

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2017/07/11	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 – 19:30	

BILDUTAKOAK:

- Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)
- Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)
- Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta
- Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

M. UBARRETXENA (Lehendakaria): Arratsaldeon guztioi eta gaurko plenoari hasiera emango diogu.

Bueno hasteko nahiz eta eguneko gai ordenean ez egon denon artean adostutako adierazpen instituzional bat irakurtzera pasatuko gara Edesa industrialeko egoera dela eta honela dio:

Adierazpen instituzionala

Edesa industrialeko egoera larria da eta Arrasateko udala osatzen dugun alderdi politiko guztien izenean elkartasuna adierazi nahi diegu bertako langileei baita era gure elkarlana langileen ezinegona handia da baita ere arrasateko udalarena gaur arte ez baidu lortu enpresako ordezkariak inongo esplikaziorik ematea enpresa aurrera ateratzen laguntzeko langileen prestutasuna ikusirik Arrasateko udalak eskatzen du ezizioko EREa atzera botatzea eta aukera guztien analisia egitea enpresari eskatzen diogu bideragarritasun plan sinesgarri bat aurkeztea eta honekin bai hasiera ematen diogu plenoari.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2017ko ekainaren 6ko bilkurako akta, aho batez, onartzen dira.

2.- LBK; HAINBAT LANPOSTUEN BALORAZIOAREN BERRIKUSPENARI BURUZKO PROPOSAMENA. (2017PBBE0010)

Udal Plenoak, aho batez, Enplegu eta Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalak 2003ko maiatzaren 20an onartutako araudian jasotako 'balorazioak berriro ikusteko prozedura'ri jarraituz, hainbat lanpostuen balorazioak berrikusi ditu Balorazio Komiteak, 2017ko maiatzaren 23an eta 29an eta ekainaren 1ean egindako bileretan.

Gainera, ekainaren 14an egindako bileran, Balorazio Komiteak egindako aurre-kalifikazioaren aurka aurkeztu diren alegazioak ere aztertuak izan dira.

Ondorioz, eta dagozkion izapideak bete direnez, Enplegua eta Pertsonal batzordeak, hauxe proposatzen du:

1/ Behean aipatzen diren lanpostuen balorazioak finkatzea, modu honetan:



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Kod.	Lanpostua	Plaza kopurua	Sailkapen taldea	Destino osagarria (Puntuak)	Destino osagarria (Maila)	Espezifik o osagarria (Puntuak)	Udalhitz maila
77	Udaltzain-buru Ofiziala	1	C1	1.025	22	1.315	19
167	Lehen Udaltzainen Koordinatzailea / Ofizial-ondokoa	1	C1	750	22	1.055	16,5
12	Lan Arriskuen Prebentzio Teknikaria	1	A2	800	23	925	18
8	Ordenantza (mandataria)	1	LT (E)	325	16	640	8,5

2/ Ezarritako balorazio berriak indarrean sartuko dira Osoko Bilkurak akordioa hartzen duenetik aurrera, 'Lehen Agenteen Koordinatzailea' lanpostuaren kasuan izan ezik, honen balorazioak 2017ko martxoaren 27ra arteko atzera eragina izango baitu.

3/ Lanpostuen Zerrendan jasotzea onartutako balorazioak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3.- 2017KO AURREKONTUAREN EXEKUZIO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2017-03-31n.(2017RBAR0019)

2017ko aurrekontuaren exekuzio egoerari buruzko informazio bidaltzen du batzordeak 2017-03-31ri buruz, zenbaki laburpen hauen arabera:

A - GASTUAK (Datuak mila eurotan)

A.1 - ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO GASTUAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)(Aukea sartuta)

ZENBATEKOA GUZTIRA	ORDAINKETA GUZTIRA	BAJAK	ORDAINDU BARIK 2017-03-31N
2.048,88	1.913,12		135,76
	93,37%		6,63%

A.2 - TXERTATUTAKO KREDITUAK (EXEKUZIOAN DAUDEN GASTUAK, 2016KO AURREK. LIKIDAZIOTIK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	BAIMENDUA	ERABILIA (adjudikatua)	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (exekutaturik)	ORDAINDUA	SOBERAKINA
3.789,02	3.741,11	1.745,25	470,62	449,10	47,91
	98,74%	46,06%	12,42%	11,85%	1,26%



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

A.3 – 2017KO URTEALDI KORRONTEA EDO AURREKONTUA (mila euroan)

KAPITULUA	AURREK.	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA (adjudikatua)	AGINDUTAK OA (exekutaturik)	ORDAINDUA	ERABILGARRI
I Pertsonalaren gastuak	10.659,94	2.366,07	2.366,07	2.366,07	2.366,07	8.293,87
	100%	22,20%	22,20%	22,20%	22,20%	77,80%
II Ondas. eta zerb. erost.	10.570,75	5.529,10	4.303,97	1.657,47	1.165,60	5.041,66
	100%	52,31%	40,72%	15,68%	11,03%	47,69%
III Maileguen inters.	20,13	3,65	3,65	3,65	3,65	16,48
	100%	18,13%	18,13%	18,13%	18,13%	81,87%
IV Transferentzia korronteak	4.715,84	628,23	625,95	601,40	597,07	4.087,61
	100%	13,32%	13,27%	12,75%	12,66%	86,68%
V Kredito globala	50	0	0	0	0	0,72
	100%					1,44%
VI Inbertsioak	4.035,32	1.358,33	274,16	70,01	56,39	2.676,99
	100%	33,66%	6,79%	1,73%	1,40%	66,34%
VII Kapit. transferentziak	1.049,06	464,95	464,95	264,95	264,95	584,11
	100%	44,32%	44,32%	25,26%	25,26%	55,68%
VIII .Finant. aktib.	180	91,79	91,79	1,79	1,79	88,21
	100%	50,99%	50,99%	0,99%	0,99%	49,01%
IX Mailegu amortz.	311,73	78,71	78,71	78,71	78,71	233,03
	100%	25,25%	25,25%	25,25%	25,25%	74,75%
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	31.543,50	10.520,83	8.209,25	5.044,05	4.534,23	21.022,67
	100%	33,35%	26,03%	15,99%	14,37%	66,65%
URTEALDI KORRONTEA + TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	35.332,52	14.261,93	9.954,50	5.514,67	4.983,33	21.070,58
	100%	40,36%	28,17%	15,61%	14,10%	59,64%



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

A.4 – DATOZEN EKITALDIAK (mila euroan)

URTEA	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA
2018	127,39	11,89
		9,33%
2019	202,57	90
		44,42%
GUZTIRA DATOZEN EKITALDIAK	329,97	101,89
		30,87%

B – DIRU SARRERAK

B.1 ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO SARRERAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	KOBRANTZAK GUZTIRA	BAJAK	KOBRATZEKO DAUDENAK 2017-03-31n
4.769,82	1.629,54		3.140,29
100%	34,16%		65,84%

B. 3 2017KO URTEALDI KORRONTEA - AURREKONTUA (mila eurotan)

KAPITULUA	AURREK.	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK (likidatutako diru-sarrerak)	KOBRANTZA GARBIAK (% onartutako eskubideei buruz)	KOBRATZEKO DAUDENAK (% onartutako eskubideei buruz)	AURREK. DESBIDERATZ.
I Zuzeneko zergak	7.658,25	1.568,79	80,51	1.488,28	-6.089,46
	100%	20,48%	5,13%	94,87%	-79,52%
II Zeharkako zergak	325	152,34	118,60	33,74	-172,66
	100%	46,87%	77,85%	22,15%	-53,13%
III Tasak eta prezioak	7.158,50	2.490,74	2.305,67	185,08	-4.667,75
	100%	34,79%	92,57%	7,43%	-65,21%



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

IV Transferentzia korrontek	15.385,65	4.128,25	3.520,40	607,85	-11.257,39
	100%	26,83%	85,28%	14,72%	-73,17%
V Ondare. sarrerak	138,20	19,02	16,92	2,10	-119,18
	100%	13,76%	88,96%	11,04%	-86,24%
VI Inoren. errealak.	220,24	2,31	0	2,31	-217,93
	100%	1,05%		100%	-98,95%
VII Kapit. transf.	146,20	54,37	21,84	32,53	-91,83
	100%	37,19%	40,17%	59,83%	-62,81%
VIII Finan. akt. aldak.	90	1,79	0	1,79	-88,21
	100%	1,99%		100%	-98,01%
IX Maileguak	398,44				398,44
	100%				100%
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	31.520,47	8.417,62	6.063,94	2.353,68	-23.102,85
	100%	26,71%	72,04%	27,96%	-73,29%
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, 2016KO LIKIDAZIOKOA	3.812,05				
URTEALDI KORRONTEA + SOBERAKINA + TXERTATUTAKO ZORDUNKETAK GUZTIRA	35.332,52	8.417,62	6.063,94	2.353,68	-26.914,90
	100%	23,82%	72,04%	27,96%	-76,18%

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Puntu hau berri ematea, badago komentariorik?

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Aurrekontuetan bai bueno aurrekontuen inguruan beti ematen dugun mezua ez? esatea aurrekontuak herraminta kudeaketarako herraminta tresna bat dela egia da martxoaren 31erako lehen begirada bat dela oraindik argazki arina lehenengoko hiruhilabeteetan gaudelako baina bai zehaztu nahi genuke bai destakatuko nahiko genuke aurrezki izaera hor dauzkagun ia 6.000 € udal gobernu honek daukan



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

proiektu handi bati aurre egiteko bai Aprendices eraikinari eta bai Juanito Arzamendi musika eskolari dagokionez ia 3 milioi 2.92 milioi aurrezkoa dago eta beste 2.95 milioi Kulturola proiekturako bueno bakarrik hori zehaztea ba ekonomia familiarretan egiten dan bezala udal honek ere konpromenez eta zuhurtasunez jokatzeko dugula eta hor daukagula ia 6 milioietako diru poltsa aurrezkoa proiektu honi aurre egiteko. Besterik ez.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste komentariorik?

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO 1. HIRUHILEKOAN ONARTU DITUEN 2017KO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA.(2017RBAR0018)

2017ko Aurrekontua Betetzeko arauen, 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketan espedientei buruzko informazioa Udalbatzarrari hiruhilero bidaltzeari dagokionez, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordeak, kronologiaz ordenaturik, 2017ko 1. hiruhilekoan onartutako espedienteen laburpen honen berri ematen dio Udalbatzarrari:

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-1-19koa, onartzen duena “1.0400.227.230.00.04 – Arrasateri buruzko giza diagnostikoa” kontusaila sortzea, 20.812€-an, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-02-02koa, onartzen duena 3.000€-an handitzea “1.0606.227.920.00.07 – Kalitate aktibitateak” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-02-16koa, onartzen duena 970€-an handitzea “1.0813.622.924.00.01.2016 – Bedoña eskolaetxe, teilatuen erreforma” kontu-sailaren diru-kopurua, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-02-23koa, onartzen duena 48.500€-an handitzea “1.0406.227.337.10.07 – etxeke suteei aurre hartzeko zerbitzua” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0100.226.929.00.99 – Kreditu globala” kontu-sailetik, 24.500€, eta “1.0800.601.153.20.00.2016 – Asfaltatuak” kontu-sailetik, 24.000€, bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-3-09koa, onartzen duena “1.0602.625.920.00.00 – Artxiboko ekipamendua” kontusaila sortzea, 21.050€-an, “1.0800.601.153.00.00 – Bide publikoen urbanizazioa” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-03-16koa, onartzen duena 6.000€-an handitzea “1.0100.226.326.00.99 – Memoriari buruzko prozesua” kontu-sailaren diru-kopurua, “1.0500.622.150.00.00 – Udal ondarrerako inbertsioa” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-03-30koa, 2016ko aurrekontuaren likidazioa eta, aldi berean, 2017 urteko aurrekontura kreditu txertatuak bidaltzea onartzen duena, guztira kontusail desberdinetan 3.812.045,92 euroko gehikuntza suposatzen duelarik, horietatik, 270.713,46€ lotutako finantzazio bidez sorturiko diruzaintza gerakinaz finantzatuta eta, gainontzekoa, 3.541.332,46€, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinaz finantzatuta.

5.- ARRASATEKO UDALA ETA GARAGARTZAKO ORTU EKOLOGIKOEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA ALDATZEKO PROPOSAMENA.(2017IGAR0018)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalbatzarrak 2008ko abenduaren 11n hartutako akordioaren bidez, Garagartzako Ortu Ekologikoen Funtzionamendu Erregelamendua onartu zuen Udalak (2009ko martxoaren 6an GAOn argitaratutako testua).

Udalbatzarrak, 2011ko maiatzaren 16an hartutako akordioaren bidez, “Arrasateko udala eta Garagartzako Ortu Ekologikoak Elkartearen artean Garagartzako ortuen funtzionamenduaren irizpideei buruzko hitzarmena” sinatzeko eta Garagartzako Ortu Ekologikoen Funtzionamendu Erregelamendua aldatzeko akordioa hartu zuen (azkeneko hau 2011ko uztailaren 20an GAOn argitaratutako testua).

2011ako maiatzaren 20an “Lankidetzeta Hitzarmena sinatu zen Arrasateko Udalaren eta Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkartearen artean, ortu horien funtzionamendu irizpideei buruz”.

Udalbatzak, 2013ko uztailaren 23an egindako bilkuran, “Garagartzako Ortu Ekologikoen Funtzionamendu Erregelamenduaren 2. aldaketa onartu zuen (2013ko urriaren 10ean GAOn argitaratutako testua).

2017ko maiatzaren 16an Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkartek eskatu du aldatzea 2011kako maiatzaren 20an sinatutako Hitzarmenaren aspektu batzuk, Ortu Ekologikoen funtzionamendu Irizpideei buruzkoak.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Aurrekoa dela eta, Lankidetzaren Hitzarmen berria idatzi da, aurrekoan sinatutakoari egindako aldaketak jasotzen dituena.

Hori horrela, hauxe proposatu dio Udalbatzarrari Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak:

I.- Arrasateko Udalaren eta Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkartearen artean Lankidetzaren Hitzarmen berria sinatzea ontzat ematea, ortu horien funtzionamendu irizpideei buruzkoa, jarraian azaltzen diren klausulen arabera:

“1.- Hitzarmenaren helburua.-

Lankidetzaren Hitzarmen honek helburua du finkatzea bai utzi beharreko ondasunak bai funtzionamendu eta koordinazio irizpideak, Arrasateko Udalaren artean eta Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkartearen artean (aurrerantzean GOEE), Garagartzako ortu ekologikoei buruzko guztian.

2.- Lagatzea helburu duten ondasunak eta funtzioak, hitzarmenean erregulatuta datozenak.

2.1. Erremintak eta makinak erabili eta kudeatzea:

Arrasateko Udala utzi egiten dio GOEEri I. Eranskinean jasota datozen erremintak, makinak eta beste osagarri batzuk erabiltzen, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, elkartekideek, Garagartzako ortu ekologikoen kontzesiodunek, nekazaritza ekologikoa egin dezaten.

2.2. Instalazioen eta jardueraren erabilera eta kudeaketa:

GOEEk Garagartzako ortu ekologikoen jarduera orokorraren kudeaketa arruntaren ardura hartzen du, Erregelamenduan eta Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

3.- Aldeen ahalmenak

3.1. Udalaren ahalmenak:

Arrasateko Udalak ahalmen hauek gordetzen ditu:

- *Ortuak erabiltzeko baimena ematea Udal Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoei, dagokion administrazio kontzesioaren bidez.*
- *Partzelen adjudikazioak, hasieran, behin-behineko izaera izango du, behin-betiko izaerara aldatuko da ziutatzen denean sarrera-kuota ordaindu diola GOEE-ri. Sarrera-kuota hilabeteko epean ordaintzen EZ bada adjudikazioa deuseztatuta geldituko da eta eskatzaileak partzela erabiltzeko eskubidea galduko du.*

Edozelan ere, GOEEk Udalari proposatu ahal izango dio hutsik geratzen diren ortuak adjudikatzea, barne irizpideetan oinarriturik, eta ortuak berrantolatzea, lehentasunetan oinarriturik, eta Udalari egokituko zaio bidezkoa den akordioa hartzea. Erregelamenduan jasota dauden sartzioak jartzea, kontzesiodunek egin ditzaketen arau-hausteengatik.

- *Administrazio kontzesiodunaren titular bakoitzarentzat, Ordenantza Fiskalaren bidez, jabetza publikoko erabilera pribatuaren tasa ezartzeko eskumena. Edozelan ere, Udalak GOEErekin hitzartzen du GOEEk diru-biltzea kontzeptu horren truke Udalak ezartzen duen kopurua*



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

elkartekideei, geroago bildutako diru-kopurua ordaintzeko, hartarako Udalak erabakitako kontu korrontean.

Horri buruz, Udalak GOEEri bidaliko dio urtero ordainagiri bakar bat, eta GOEEK 2 hileko epea izango du Udalari ordaintzeko.

Zenbatekoa 20 €/urtekoa izango da, okupatutako ortu bakoitzarengatik.

Udalari gordetako 7 partzelak erabiltzea, bere jarduerak garatzeko direnak (prestakuntza, hezkuntza, esperientzia jarduerak, eta abar), bai eta hainbat eremu erabili eta kudeatzea ere, adibidez, txabola nagusiko atzealdea eta alboak, eta han dagoen material biltegia ere bai.

3.2. GOEEren ahalmenak:

Bere estatutuetatik datozenez gain, eta Garagartzako ortu ekologikoen kudeaketari dagokionez, ahalmen hauek ditu GOEEK:

- *GOEekoak diren pertsona guztiek ordaindu behar duten diru-kopurua ezartzea, eta hori erabiliko da hitzarmen honen bidez elkarreak hartzen dituen obligazioak finantzatzeko. Diru-ekarpen horren berri emango dio Udalari, aldez aurretik, eta Udalak adostasuna eman beharko du.*

Ondorio horietarako, Udalak adostasuna erakutsiko du baldin eta 15 eguneko epean, jakinarazten denetik kontaktzen hasita, kontrako arrazoirik adierazten ez badu.

- *Kudeatzea instalazioak eta jarduerak, horien plangintzaren bidez, eta saiatzea kontzesionarioen interesak eta legezko interesak bateragarri egiten.*
- *Jarduerak garatzearen ondorioz sortu daitezkeen gorabeherak erabakitzea.*
- *Instalazioak zabaldu eta ixteko ordutegia ezartzea.*

4.- Aldeen betebeharrak:

4.1. GOEEren betebeharrak:

4.1.1. Instalazioen mantentze lanari buruzkoak:

GOEEK bere burua derrigortzen du instalazioen mantentze lan arrunta egiteko, Hitzarmen honen arabera elementuak erabiltzean hondatutako elementuak konpondu eta berriro jartzeko jarduerak.

4.1.2. Garbiketari, ur gastuei, elektrizitateari eta beste hornidura batzuei buruzkoak.

GOEE instalazioen garbiketaz arduratuko da. Horretarako, garbiketa egutegi bat aurkeztu behar du Udalean, eta hala badagokio, kontratatutako enpresarekin sinatutako mantentze kontratua.

Halaber, ortu ekologikoen jarduerak sortzen dituen ur eta elektrizitate gastuez arduratuko da GOEE, bai eta nekazaritza jarduera egiteko behar diren hornidurez ere (ongarriak, landareak,...).



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

4.1.3. Jarduera aseguratzeari buruz:

GOEEK erantzukizun zibileko aseguru poliza bat sinatu behar du, gutxienez 300.000 euroko kapital bat bermatuko duena, ortuak ustiatzetik sortu daitezkeen kalte-galerengatik. Urtero, martxoaren lehen hamabostaldian, indarrean dagoen polizaren kopia aurkeztu behar du Udalean.

4.1.4. Zigor prozedura aplikatzeari buruzkoak

GOEEK, Estatutuetan jasota dagoen zigor araubidea aplikatzeko, bidezkotzat jotzen dituen akordioak hartuko ditu. Edozelan ere, eta kontuan izanik elkartekoa izatea lotuta dagoela zuzenean administrazio kontzesioaren adjudikaziodun izaerarekin, GOEEK Udalari jakinarazi beharko dio elkartetik bereizi izanak ekarri ditzakeen zigor espediente guztiak ireki izana, eta GOEEK ezin izango du erabaki behin betikoz bereiztea Udalaren derrigorrezko baimenik gabe.

4.1.5. Beste betebeharrak:

GOEEK urteko memoria bat aurkeztu beharko du, eta hor agertuko ditu aurreko urtean egindako jarduerak, memoria ekonomikoa, hartutako akordioak, elkarteko kideen zerrenda, Zuzendaritza Batzordearen aldaketak, eta abar. Halaber, aurreko urtean egindako bileren akten kopiak erantsiko ditu.

Hitzarmen honetan hartutako obligazioak betetzea bermatze aldera, GOEEK fidantza bat jarriko du Udalean, 6.000 eurokoa, 30 eguneko epean, Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritako eran Udalak banakako fidantzak itzultzen dituenetik kontaktzen hasita.

4.2. Udalaren betebeharrak:

4.2.1. Instalazioen mantentze lanari buruzko betebeharrak:

Udalak bere burua behartzen du ortuetako instalazioen mantentze berezia egiteko, eta mantentze hori izango da, hitzarmen honen ondorioetarako, honelakoak moduko alderdiei eragiten dienean, instalazioetako itxitura orokorra, eraikinak, hormigoizko sarbideak, egiturazko kalteak, eta abar, betiere kalte horiek ez badira instalazioak desegoki erabiltzen direlako, erabiltzaileen aldetik.

4.2.2. Sartzeko kontrol sistemari buruzko betebeharrak:

Sartzeko kontrol sistema kudeatu eta mantenduko du Udalak. Instalazioetan sartzeko txartelak udalak erosiko ditu eta erabiltzaileei emango dizkie, hori guztia kontuan izanik GOEEri pasatu diezazkiokeela faktura eta ondorioa.

5.- Araubide ekonomikoa:

Udalak, Erregelamenduaren 9. artikulua arabera, ezartzen du ortuetako adjudikaziodunek hiru hileko kuota bat ordaindu behar dutela (aurrez aurretik finkatutakoa). Kuota hori da elkartasuneko aportazio bat jarduerari eusteko eta instalazioak eta proiektua mantentzeko.

Hitzarmen honen arabera, aurrerantzean GOEEK bere gain hartuko ditu ortuetako euste eta mantentzeari buruzko betebeharrak.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Horregatik, Udala saiatuko da egoki betetzen hitzarmen honek ematen duen filosofiaren bidez, hau baino ez dena, interesdunek (kontzesiodunek) zuzenean kudeatzea, esleitutako bitartekoetan eraginkortasun hobekuntzak lortzea.

Ondorio horretarako, kontzesiodunen ekarpenaren zenbatekoa aldatuko du, balio dezan gastuen kontzeptuak finantzatzeko, horren kudeaketa Udalaren eskudagoena, bai eta beste kontzeptu batzuk ere (egindako inbertsioaren amortizazio gastuak, konponketa bereziak, eta abar), era berean oihartzuna izan dezaketena.

GOEEk bereganatutako betebeharratik datozen gastuak finantzatzeko, entitateak, estatutuek horri buruz xedatzen dutenaren arabera, partizipazio kuota bat ezartzea erabakiko du, eta ortuetako kontzesiodun guztiak ordaindu beharko dute.

Ekimenaren sustatzaile eta bultzatzaile izaerari erantzuteko eta gaur arte ordaindutako kostuak konpentsatzeko, salbuetsiko zaio Udalari kuota hori ordaintzetik, azpiegituraren titularra delako, oro har, eta erabilera bereziak egiteko (prestakuntzakoak, hezkuntzakoak, eta abar) adjudikatu ez eta gordetako 7 ortu partzeletatik, bereziki.

Edozelan ere, 7 partzela horiei emandako erabileratik atera ezker horiek normalean erabiltzen direla eta ez noizean behin, kuotetatik salbueste hori berriro aztertu daiteke, aldean artean bat etorri eta gero.

6.- Hitzarmena desegiteko kausak.

Hitzarmen hau desegiteko arrazoiak izango dira hauek:

- *Pentsatutako helburua betetzeko ezintasun materiala*
- *Aldeek hartutako funtsezko betebeharrak bete ez izana.*
- *Ortuak nabarmen gutxiegi erabili izana.*
- *Udalaren borondatea, udalbatzarrean hartutako akordioan adierazia, 3 hilabeteko gutxieneko alde aurretiko abisuarekin.*
- *GOEE-ren borondatea Asanbladan hartutako akordioan adierazia., 3 hilabeteko gutxieneko alde aurretiko abisuarekin.*

7.- Indarraldia

Hitzarmen hau indarrean sartzen da sinatze datan eta hiru urteko indarraldia izango du, luzatu daitekeena eta iraunaldi berdinarekin.

Koordinazio mekanismo gisara bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hau osatuko dute Hirigintza, Ingurumena eta Mugikortasun sailtako zinegotzi eskuordetuak eta GOOeko Lehendakariak.

Alderdiek ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.”

II.- Akordioaren berri Garagartzako Ortu Ekologikoen Elkarteari ematea.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Puntu honetan komentariarik? Bai Juan Luis.

J.L MERINO (IRABAZI):

Si bueno estando de acuerdo porque es de un convenio entre las partes lo que me llama la atención o lo que quiero incidir un poquito es en el tema de la en el punto 4.1.2 a los gastos de agua y todo eso se hace cargo la propia asociación, pero si es verdad que hay un proyecto el tema del goteo. Eso no les exime de responsabilidad medioambiental a la asociación no porque lo paguen ellos puedan consumir lo que quieran. Yo creo que ese tema se debería de tratar en la mesa de medioambiente para impulsarlo lo antes posible

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko Juan Luis. Jasotzen dugu zure eskaera eta arazorik ez ingurumen mahai horretan tratatzeko. Orduan puntua bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	21	EAJ-PNV (8), PSE-EE (3), BALEIKE (2), EH-BILDU (7) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:		

6.- PROPOSAMENA ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO, EGINAK AE 60.- HONDARRIBIA KALEA EREMUAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI BURUZ, ETA AGIRIA BETIKO ONARTZEA.(2016HPBE0002)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko martxoaren 16an egindako bilkuran, hasiera batean onartu zuena AE 60.- Hondarribia kalea eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia”ren agiria, sustatua udalak berak eta idatzia “ASMATU, SL” enpresak.

Agiri hori jendaurrean erakutsita, hartarako emandako aldian alegazio idatzi hauek aurkeztu dituzte hauek: 1.- Kepa Ormaetxea Milikua (Hondarribia kalea, 17); 2.- Jesús Romero Romero (Hondarribia kalea, 3); 3.- M^a Encarnación Agirrebengoa Agiriano-Zabala (Hondarribia kalea, 13); 4.- Onintza Barandiaran Zubiate eta Salvador Arrotxa Gil (Hondarribia kalea, 21); 5.- Jesús M^a. Beitia Ugarte (Hondarribia kalea, 8); 6. - M^a. Blanca Arana Gorostiza (Hondarribia kalea, 11); 7.- M^a. Angeles Ibarrodo Aguirre (Hondarribia kalea, 9); 8.- Juan José Iglesias Lajas (Santa Marina kalea, 11); 9.- M^a. Asunción Mondragón Elorza (Hondarribia kalea, 5); 10.- Enrique F. Ibabe Axpe (Hondarribia kalea, 4); 11.- Txaro Aguirre García (Hondarribia kalea, 15); y 12.- Idoia Altuna Zubizarreta (Hondarribia kalea, 19).



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Aurkeztutako alegazioen edukiak laburtuta jasotzen dira diktamen honetako 1. Eranskinean.

Ikusita zer txosten egin duten udaleko zerbitzu teknikoek, zeinetan aztertzen dituzten alegazioak, eta kontuan hartuta hau:

1.- Alegazio horiek aztertuta, egokia da erantzutea horiei diktamen honetako 2. Eranskinean jasotako hitzekin.

2.- Erantzun horren ondorioz, eta alegazio horietako baten bat onartu denez, egokia da sartzea planaren agirian hemen adierazten diren aldaketak:

a).- Doikuntzak 5, 9, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 4 eta 8 zk.ko partzeletan planeamenduak ezarritako eraikigarritasuna ezartzean.

Akatsak zuzentzea profil eraikitzaileen definizioan (bereiziz partzela bikoitiak eta bakoitiak), hirigintza kargaren fitxetan eta neurketa unitateen definizioan, erabiliak eraikigarritasuna kuantifikatzeko: m²(c).

3.- Bestalde, aztertu dira alternatiba bideragarriak ikuspegi tekniko-juridikotik antolamenduari buruz (aparkalekuak, kaleko sarbideak eta abar), eta azterketa horretatik ondorioztatzen da aldaketak sartu behar direla planaren agirian; hona hemen aldaketak:

a).- Handitzea leku publikoa, kalera sartzeko eremuan biderako dena, horren barruan sartuta oinezkoen igarotzearena leku horretan aurreikusten den igogailu publikorantz.

b).- Horren ondorioz, aldaketa txiki bat partzelazio azaleran Hondarribia kalea 2ko partzelari dagokionez (35. art.), zeina ez datorren bat ezelan ere horrentzat proposatzen diren aukera eraikitzaileetan.

4.- Goian esandako aldaketa guztien berri eman zaio “ASMATU, SL” enpresari, zeinak egin duen planaren behin betiko agiria.

5.- Aldaketa horiek ez dira funtsezkoak.

Ikusita zer ezartzen duen Eusko Legebiltzarreko 2/2006 Legeak, 97. eta 95-96. artikuluetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruz, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena, 22.2c) artikuluan, idatzia 11/1999 Legeak, apirilaren 21ekoa.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun batzorde honek proposatzen dio udaleko osoko bilkurari akordio hau hartzea:

I.- Erantzutea alegazioei, eginak AE 60.- Hondarribia kalearen eremuaren hiri antolamenduko plan bereziaren agirian erakustaldian, diktamen honetako 2. Eranskinean jasotako hitzekin, alegazio horietako batzuk onartzearen ondorioz erantzun horretatik datozen aldaketekin.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

II.- Behin betiko onartzea “AE 60.- Hondarribia kalea eremuaren hiri antolamenduko plan berezia”ren agiria, sartutako aldaketekin osatua, datozenak, batetik, alegazio batzuk onartu direlako, eta, bestetik, antolamenduari buruz egindako azterketaren konklusioetatik (aparkalekuak, kalerako sarbideak eta abar).

III.- Bidaltzea agiriaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapeneko Departamentura, dagokion erregistroan gordetzeko.

IV.- Indarrean sartu dadin, argitaratzea behin betiko akordioa eta, gutxienez, planaren hirigintza arauak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Puntu honetan komentariorik?

I.URIZAR (BALEIKE):

Arratsaldeon denoi. Lehenengo eta behin esatea gobernu taldeak askotan erabiltzen duela formen aitzakia. Gure ustetan eztabaida politikotik aldendu eta bozketetan botoaren eskuineko kutsua ezkutatzeko. Adibidez aurreko osoko bilkuran LGTBI mozioarekin hau gertatu zen. Bitxia iruditzen zaigu gure formen aitzakia aurpegira botatzea eta zuen lana egiteko era askotan autoritarioa, gardentasun urrikoa eta askotan prepotentea denean.

Batzordeetara proposamenak eramateko esaten diguzue baina gero batzordeetan askotan oposizioa inongo errespetu barik tratatzen duzue, hitza kendu eta isilaraziz, irain eta errespetu faltak askotan, kondeszendentsia eta paternalismoarekin kasu askotan.

Hondarribia kaleko alegazioekin zuen formak gure ustetan berriro islatzen dira bi aukera zeuden oraingo alde batetik alegazioak erantzun eta herritarrek azkeneko iritzia emateko aukera eman edo aukera hori ez ematea.

Hainbat arrazoi jarri ahalko duzue baina lehentasunak ezartzerakoan auzokideetako arreta ez da horien artean zuentzat. Euren egunerako bizian eragin zuzena izango du plan bereziak eta ze gutxiago gauzak ondo landu eta auzokideetako arreta zaintze alegazioetarako ahalik eta denbora gehiena eman. Errespetu kontua da. Honenbestez gure taldeak modu hauen kontra bozkatuko du.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

M.ZABALETA (EH-BILDU):



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Arratsaldeon denoi. Hondarribia kaleko egoera heldu beharreko gaia zen zalantzarik gabe lurren errepizioa hau udalaren aldetik zonaldearen kontsolidazio urbanistikoa, trafiko eta aparkalekuen azterketa eta planteamenduak garrantzitsuak dira. Iruditzen zaigu oro har, prozedura zuzena izan dela baina azken orduko presa batzuk ezin ditugu konpartitu. Gure ustez hobe litzateke alegazio denak erantzutea eta herritarrei azken iritzi eta ekarpenak emateko aukera eskaintza plenoan pasatu aurretik, ez dugu uste bi hilabete baina gehiago izango liratekeenik eta hobeto borobilduko litzateke prozedura ez orain bezala herritar batzuk erantzuna eman zaionean, egun honetako plenoan aurretik eta beste batzuei oraindik ez.

Bi hilabetek gainera aukera emango liguke aparkalekuen gaiari buelta bat emateko jakitun gara arrasatearren kezka nagusienetako dela eta ahalik erantzunik onena eman nahiko genioke, hau dela eta abstenitu egingo gara EH-bilduko kideok prozedura ia osoarekin osotasunekin bat egin arren pena ematen digulako azken orduko presak prozedura apur bat itsutzea.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

I.ARRUPE (EAJ-PNV):

Hondarribi kalea eta bertan dazen etxeak egin zirenetik 40 urte baina gehiago pasatu ondoren, azkenean lortuko da kale hori udalak errepzionatzea eta dagokion zerbitzu guztiekin hornitu ahal izatea plan berezi hau onartuaz alde horretatik nik bai eskertu nahi dotziet Hondarribia kaleko biztanle guztiei bene-benetan plan berezi hau onartzeko egin dauen esfortzua onarpena eta beraien eskuzabaltasuna ze egia da plan berezi bat onartzen danean hor definitzen die karga urbanistikoak etab. Karga horiek poltsikoa ukitzen dabe eta inori ez jaku gustetan poltsikoa ukitzerik eta eurak euren eskuzabaltasunez prest daz onartzeko karga horiek eta poltsiko ukitze hori. Alde horretatik gobernuaren izenean gure esker ona luzatu nahiko notzuke eta prozesuak luzatu daitezke 40 urteetan luzatu da prozesu hau eta bueno uste dugu momentua dela ia behingoz ixtea eta kale horrek behar dituen zerbitzuak etab lortzeko prozedimendua martxan jartzea da lehen bailehen.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik? Orduan bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Kontrako botoak:	2	BALEIKE (2)
Abstentzioak:	8	EH-BILDU (7) eta IRABAZI (1)

Beraz, onartzen da.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

7.- EH BILDU, BALEIKE ETA IRABAZI UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA PRESTAZIOAREN INGURUKOA.

Datorren Ohiko Osoko Bilkuran Eneko Barberena, Igor Urizar eta Juan Luis Merinok “Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta berritzeari” buruzko proposamen hau aurkeztuko dugu, eztabaidatu eta onartzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko ekainaren 1ean, Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak honako hau esan zuen, hitzez hitz, hedabide baten aurrean: «650 euro kopuru nahikoa da pertsona batek bizitza duin bat eduki dezan».

2016. urtean, erosketa-saskiak 220 euroko kostua zuen, batez beste, eta etxebizitza bat alokatzeko batez besteko prezioa Arrasaten 400 eta 750€ bitartekoa da. Gauzak horrela, argi dago 650 euro ez dela nahikoa oinarritzko premiak beteta bizitzeko. Gure lurraldean gizarteratze-alorrean diharduten kolektibo eta erakunde gehienak bat datoz azken iritzi horrekin.

Gainera, langile pobretuak gure lurraldean gero eta gehiago direla uste dugu. Ildo horretan, errealitate aldakor horri aurre egin behar diogu, gizartea babesteko bitartekoak errealitate berrietara egokitu behar ditugu eta lehendik martxan dauden tresnak blindatu, hainbat gizarte-talderen artean hedatu diren gizarte-desberdintasunen, pobrezia edo ongizaterik ezaren aurka borrokatzeko funtsezkoak diren heinean.

PROPOSAMENA

- a. Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak adierazi berri du hilean 650 euro kopuru nahikoa dela bizitza duin bat edukitzeko, eta Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio baieztapen hori ezeztatzeko.
- b. Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta berritzeko prozesua berregokitzeko, kudeaketa hobetuz; tresna hori pobrezia eta gizarte-desberdintasunak deuseztatzeko baliagarria dela ziurtatzeko; eta haren premian dagoen pertsona edo familia bat ere kanpo ez uzteko betekizunak gogortzearen ondorioz.
- c. Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio diru-sarrerak bermatzeko errenta blindatzeko, herritarren eskubide subjektiboa den aldetik.
- d. Udal honek Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio DSBEn lege erreformaren eztabaida giza eskubideen barnean koka dezala, eta ez kontrol eta ustezko iruzurraren inguruan.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Epa arratsaldeon denoi. Batzuk Lanbidera doaz goizetan eta gauez delitu egile dira hau esan zuen Javier Marotok Eusko Legebiltzarrean 2015eko otsailaren 12an gure ustez maiz ahalegindu da eskuina gizarte laguntzak kriminalizatu eta estigmatizatzen egun gainera arrasatear bat da “Ayudas mas justas” elkarte zalantzagarriaren buru non ez dioten begiratzen esaterako Fagor CNAk Eusko Jaurlaritzari behin eta berriz iseka egiteari eta bai ustez DSB edo RGIari ustez darion iruzurrari eta ustez errepikatzen dugu izan ere Lanbideko datuen arabera 2017ko martxoaren 7an argitaratutakoak 135.410 kasuetatik bakarrik 392 kasutan antzeman direlako irregulartasunak osotasunaren 0.3a soilik Javier Maroto eta bere kuadrilako astakerien aurka Gasteiz mobilizatu zen eta gora Gazteiz lelopean eskuzabaltasunaren unea etorri zen.

Eskuzabaltasuna Maroto kentzeko helburua gauzatzeko. Oraingoan astakeria ez da DSB jasotzaileen aurkako astakeria txirotasunaren banalizazioa da. DSB bidez nahi dena da azken finean politika publikoan bidez jendartea kohesionatzea eta gero eta nabarmenagoak diren ezberdintasun sozialak leuntzea.

2016ko pobrezia eta bazterketa sozialaren inkestaren arabera, pobrezia egoeran direnen 10tik 7 soilik daude sistemaren barnean eta pobrezia egoeran dauden %44ak ez du DSBa eskatzen pobrezia egoeran egonda ere pobrezia ez da Dickensen ipuin baten irakurtzen den fikzioa pobrezia gauza serioa da.

Aipatutako inkestan 96. Orrialdean bi modu ageri dira pobrezia kuantifikatu eta zehazteko Beatriz Artolazabal sailburuak dio 650 € nahikoa dela pertsona batek bizi duina izan dezan, inkestak hori ezeztatzen du, esaterako PGDI kuantifikazio metodoaren arabera 45 urteetatik behera txirotasuna larriaren muga 850.21 €tan dago, 45-64 urte bitartean 777.82 €tan eta 65 urteetik gora 666.16 €tan.

Eurostaten arabera, eta hau da bigarren indikadorea pobrezia larria lagun batentzat 572€tan kokatzen da pobrezia erlatiboa 858 €tan, alegia 650 €kin pobrezia larrian zaude bi kalkulu metodoen arabera eta guri iruditzen zaigu hainbaten arduragabekeri bat dela ordezkari politiko batek zeinek usaindu ere egiten ez duen egoera baten inguruan horrela hitz egitea eta finean gure mozioarekin bi kontu azpimarratu nahi genituen. Bata txirotasunez fribolizatzea horrelako deklarazio larrien bidez eta bigarrena administrazioak ziurta dezala Arrasaten pobrezian diren guztiak sisteman barneratuak egongo direla eta duintasunezko bizi baldintzak berma diezizkiela. Eskerrik asko.

I.URIZAR (BALEIKE):

Lehenik eta behin Enekok esan dauenez guztiz ados eta guztiz kezkarri iruditzen jakula RGIa erreformatzeko ardura daukan pertsonak 650 €kin duintasunez bizi daitekeela esatea, kezkarria zeren eta erakusten digu zein alenduta dauden pertsona hauek Euskal Herriko herritar gehienek errealtateak, noski hauek beste errealtate baten bizi dira jantzi garesti, negozio, ate birakari eta klientelismoz jositako errealtate polit batean.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Arduradun hauek Artolazabal edo Marotok egindako adierazpenekin adibidez, argi erakusten digute inolako enpatiarik ez dutela eta are gutxiago gaitasuna gure jendearen arazoak kudeatzeko. RGIaren erreforma jorrazterakoan iruzurraren ikuspegia ongizatearen ikuspegiaren gainetik lehenesteak laguntzaren erabiltzaileak kriminalizatu eta gaitzesten ditu eskuin muturreko diskurtso populista, xenofobo eta arrazista elikatuz.

Utzi guri herritarren eskubideak alderdi korruptuekin egiten dituzuen negozioetik kanpo, utzi gure ongizatea diru truk saltzea hasi enpatia pixkat izaten eta jende xumearen arazoetaz arduratzen eta mesedez ez ezazue berriro horrelako astakeriak esan jendearen duintasuna irainduz

J.L MERINO (IRABAZI):

Yo voy a un poquito a seguir la línea de Eneko e Igor voy a dar algunos datos sobre todo datos que nos interesa de aquí de Arrasate, aquí estamos a la señora Beatriz Artolazabal deberíamos decir que intente vivir 650 € y luego que nos cuente su experiencia ¿no? En Arrasate tenemos 543 perceptores de RGI de los cuales 250 son del estado español no especifica más ¿no?

Le podemos asegurar una vida digna con 650 € a estos 543 mondragoneses y mondragonesas, no se nosotros pensamos que no. Los datos que nos dan el informe de la pobreza, la encuesta de la pobreza y la desigualdad que dice que el umbral de la pobreza en Euskadi esta 920 € con 650 pues imposible vivir.

El precio de la vivienda nueva y el alquiler ha crecido bastante ¿no? Lo suministros en Euskadi la luz ha subido un %50 desde el 2007. Ahora la cesta de la compra es la más cara de todo el estado español. Entonces con estos datos no se pueden no podemos una familia unas personas no pueden vivir dignamente es más Beariz Artolazabal dice esto, pero es que el presidente de la CEOE dice que con 800 € es imposible llegar a fin de mes y este no es de nuestra orbita.

Pensamos que es un pago político a al PP le está haciendo el juego a ese partido de la derecha española y no entendemos porque tan social y tan bueno que son el PNV se expresa sí.

O.GARCIA (PSE-EE):

Arratsaldeon guztioi bien RGI la RGI tradicionalmente y no lo olvidemos se creó como renta de garantía de ingresos y es algo que todos los que estamos sentados en esta mesa creo que defendemos, una renta mínima para que las personas vivan dignamente dicho esto la señora Beatriz Artolazabal metió la pata hasta la ingle diciendo que 650 € se puede vivir también es cierto que esas declaraciones están un poco sacadas de contexto hay que leer lo que dijo después lo que dijo antes y a pesar de que no lo comparto y tampoco lo voy a disculpar pues es verdad que está un poco sacado de contexto pero repito ni lo comparto ni lo voy a disculpar.

Yo le invitaría a la señora Beatriz Artolazabal a que viviese no con 650 sino con 900 € ya ni siquiera 800 y pico y pagase un piso, pagase la luz, el agua, la calefacción, comiese y viviese que también hay que vivir.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

En cualquier caso, ni estoy con la señora Beatriz Artolazabal con esas declaraciones ni con el señor Maroto desde luego ser un xenófobo es casi ser lo más bajo en mi escala de valores y ese señor merece ese calificativo y algunos todavía peores que no creo que debiera de decir aquí porque incurriría casi en delito.

Respecto al diagnóstico que hacías los tres grupos me parece muy importante, me parece muy importante tener un diagnóstico de base me parece extremadamente acertado con datos bien contrastados el que hacías tu Eneko, el que hacías tu Igor y el diagnóstico que hacías tu Juan Luis pero es que da la casualidad de que hace unos meses hubo un acuerdo parlamentario transaccional entre PNV, Partido Socialista, Elkarrekin-Podemos y EH-Bildu con la abstención del PP por supuesto en el cual venía recogida parte de la moción que hoy presentáis porque habéis hablado del diagnóstico que está muy bien pero el fondo de la cuestión es otro que es instar al gobierno en vitoria a que haga una reforma digna de la RGI bien eso ya está en marcha, eso está en marcha se tomó ese acuerdo y lo primero que decía ese acuerdo es que había que hacer un informe pues para ver un poquito cual era la situación de la RGI en el territorio histórico vasco ¿no?

Digo todo esto para que la gente tenga conciencia de lo que estamos hablando se le daba un plazo de 15 meses al gobierno para efectuar ese diagnóstico y ese diagnóstico este hecho es un informe de 72 páginas de las cuales 54 son de diagnóstico y está hecha a partir de un trabajo en una comisión técnica.

Me imagino que parte de los datos que has dado Eneko seguramente vendrán de ese informe porque vienen recogidos en él lo cual es perfecto. Dicho esto, estamos en el punto de partida, el punto de partida no puede ser nunca el final del camino es el punto de partida, ese punto de partida requiere del consenso de todos y todas los que estamos aquí sentados estamos en una mesa en el Parlamento Vasco donde tenemos nuestros grupos políticos en el Parlamento Vasco y esos grupos políticos los nuestros son los que tienen que llegar a un acuerdo a un acuerdo a poder ser unánime tienen que trabajar ellos.

Nosotros podemos empujarles podemos instarles a nuestros grupos a que trabajen de la mejor manera posible las reflexiones no deben de ser finales como si fuera el gobierno el que fuese imponer la reforma de la RGI hay una mesa constituida y esa mesa es la que se tiene que poner de acuerdo ¿Por qué es importante la RGI? Porque todos nos miran, todos los territorios fuera de Euskadi en el estado español incluso en Europa nos miran porque el modelo de RGI que tenemos en Euskadi es uno de los modelos más avanzados, imperfecto, inconcluso, mejorable pero es uno de los mejores tenemos un buen punto de partida vamos a ponernos de acuerdo para que ese modelo sea a un mejor como se puede hacer mejor ese modelo llegando a consensos, llegando a consensos nosotros por ejemplo como partido político lo que hemos propuesto son incentivos a que esa gente que está en RGI por trabajar dos horas, no deje de percibirla sino que tenga el aliciente de que pueda trabajar se inserte en el mercado laboral y pueda cobrar una RGI para completar y tener unos ingresos dignos y mínimos.

Dicho todo esto nosotros a pesar de que estamos de acuerdo con el espíritu de que tiene que haber una reforma de la RGI digna y que garantice los ingresos a todo aquel que lo necesite y recalco a todo aquel que lo necesite y sin demonizar la RGI nosotros no podemos estar de acuerdo con esta moción porque está en el parlamento vasco en vías de tramitación una reforma la cual estamos todos los grupos juntos trabajando intentando llegar a acuerdos.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Yo personalmente voy a instar a mi grupo parlamentario en Vitoria para que trabajen y se dejen los cuernos como vulgarmente se dice para que esta reforma sea de acuerdo con unos minimos para que la gente pueda vivir dignamente pero no voy a instar a un gobierno a algo que ya está haciéndolo gracias.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Arratsaldeon berriz ere. Egia da Oscarrek hainbat aspektu nik azaldu nahi dituen adierazi dituela lehenik eta behin argi eta garbi geratu dadila Arrasateko EAJ-PNVk Arrasateko udal gobernua garbi utzi nahi du 650€kin ezin da bizitza duin bat eraman niri ez dagokit guri ez dagokigu Artolazabal anderearen adierazpenak justifikatzea baina bai egia da esaldi hori elkarrizketa batetan esan zuela radio euskadin ekainaren batean Dani Alvarez egindako elkarrizketa batetan baina egia da baita ere, sortu zan ondorio sortu zan esaldi hori atera zan titular gisa eta handik egun batzuetara pasako dizuet nahi baldin baduzue guztioi berak argitu zuen gaia, argitu zuen gaia eta berak zioen 650€ horietaz gain beste 250 € ere daudela prestación complementaria de viviendari dana dela ez dagokit niri Artolazabal sailburua momentu batzuetan, egia da, danok gara gure hitzen esklabu eta momentu batzuetan esaldi batzuetan hori esan zuen eta guk ere ezin dugu bat egin esaldi motz horrekin baina behin eta berriz diot berak azalpenak eman zuen eta adierazi zuen.

Dana dela bat gatoz guztiekin ez dela duina 650€kin bizitzea. Dena dela bat nator Oscarrek esan dauenarekin baita ere hau da, kontuan izan behar dugu abenduaren 15ean 2016ko abenduaren 15ean Parlamentutik Eusko Jaurlaritzari a traves de una PNL dela una proposición no de ley eskatu zitzaion gobernuari eskatu zitzaion, hau da, proposamen bat ikerketa bat egitea RGIaren inguruan eta datu batzuk Eneko Barberena jaunak eman ditu eta baita ere bost hilabete zeukan parlamentuak hala eskatuta Jaurlaritzak enplegu sailak hau da Artolazabal sailburuaren lan taldeak proposamen bat parlamentuan aurkezteko proposamen bat ekintza epe labur eta ertaineko ekintza plangintza batekin Artolazabal andereak maiatzaren 31an parlamentura joan zen eta proposamen bat berriz diot proposamen bat aurkeztu zuen parlamentuak hala eskatuta eta Oscarrek dioen moduan orain gaia parlamentuan dago eta PNLak horrela funtzionatzen dituzte hau da jaurlaritzatik proposamen bat egiten da eta proposamen horiek gero parlamentuan alderdi politiko guztiek eta gainera guk hemen gauden guztiok bertan errepresentatuta gaude parlamentarioak orain gai hau eztabaidatzen ari dira, modifikazioak egiten ari dira.

Oscarrek dioen bezala es ke ez orain dela bi hilabete orain dela 10 egun beste modifikazio batzuk heldu gara adostasun batera berriz ere hemen gauden alderdi guztiok beren bozka aurkakoarekin oraingoan ere modifikazioak egiteko proposamen horren baitan. Horregatik bat nator Oscarren mezuarekin mesedez hemen ezin dugu instar al gobierno vasco es ke pelota momentu honetan ez dago jaurlaritzaren teiltuan parlamentuaren teiltuan dago eta gure parlamentariak hemen gauden alderdi politikoaren parlamentariak ari dira lan hau egiten beraiei dagokie lan egitea bat nator ere RGIa beharrezkoa da, beharrezkoa da behin behineko diru laguntza gisa, hau da, egin behar duguna da beharra daukaten jendeari momentu puntualetan laguntzea behar den denboran baina beti ere lan merkaturatzera bideratutako politikak bideratuz eta berriz diot gure alderdi politikoak hemen gaudenak ordekatuta horiek egiten ari dira orain parlamentuan daude lan egiten nik ere berdina eskatzen dizuet, guztion ardura da bat nator zuekin eskatu diezaiogun gure alderdi bakoitzari gure parlamentariei Gasteizko parlamentariei parlamentuan non guztiok gauden ordekatuta interes hauei alde egin dezaten.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Beraz, azalpen horiei guztiekin uste dut mozioan agertzen diran eskaera Jaurlaritzari ez daukatela zentzurik, beraz, guk ere ezin diogu babesik eman mozio honi. Mila esker.

J.L.MERINO (IRABAZI):

Oscar porque haya un acuerdo para abrir una reflexión sobre la RGI en el Parlamento Vasco no quiere decir que vayamos agarrados de la mano solo fue eso un acuerdo para abrir un proceso de reflexión sobre el tema de la RGI en cuanto a las 15 medidas que han planteado el Gobierno Vasco intenta consolidar cuestiones que de facto son ajenas a la ley que se aplican en pro de reducir costes para el gobierno y no para proteger a las personas.

Hoy con estas medidas lo que se va a quedar fuera del sistema son 60.000 personas y están mirando más la economía que los problemas de las personas ¿no? El PNV y PSOE en campaña decían una cosa y no eran sinceros criticaban los ataques del PP a la RGI y hoy ceden ante el partido de Maroto osea de que nos estáis hablando no me estáis diciendo que parece ser que el PP es el único que esta fuera de esto y todos los demás vamos juntitos no señores, no vamos juntos con 650 € no puede vivir nadie y lo primero que hay que hacer es reprobar a esta señora a que rectifique y aclara las y sobre todo que se reforme la RGI en función de las personas y no de la economía.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Pozten gara berriz mozioen eztabaidara itzuli garela bai zalantza gabe hainbat formula daude mahai gainean nik uste dut behintzat EH-Bildu mozio honekin nahi zuela kezka bat agerteraztea eta gure kezka bueno planteatu diren proposamen norabidearen inguruan esaterako ez?

Artolazabalek esaten du adibidez hobetuko dela formula jakiteko zeintzut izango diren RGIaren jasotzaileak duela hainbat urte 2011an udazkenean Gemma Zabaletak aurkeztu zuen proposamen bat mugatzeko etxe bakoitzeko bi hartzaileetara, gaur egun batera nahi da mugatu hau esan zion Eider Mendozak parlamentuan eta da muga honek suposatzen dena dela ekiditeko pilaketa edota patera etxebizitzaren existentzia praktikan ekarriko du pertsona askok beharragatik pisua konpartitzen dutenak laguntza sistematik at geratzea eta horrenbestez inolako koberturarik gabe gure ezinegona adierazi nahi dugu Eusko Jaurlaritzaren ekimen larri honek gure gizarteko pertsona babesgabeenak kale gorrian utziko dituelako eta hori zen hain justu aurreko exekutiboak ekidin nahi zuena diru sarreraren berme eta gizarte inklusio lege bati onarpenari emaniko bultzadaz nire egiten ditut Eider Mendozaren hitzak eta berriz errepikatzen ditut kasu honetan Artolazabal asmoen aurrean ezin dugu onartu jendea kanpoan geratzea sistematik eta horregatik aurkeztu nahi genuen mozioa nolabait guri ere gure parlamentuko taldeak adierazten digulako norabide bat markatzen ari dela eta norabide horren aurrean agian prebentiboki baina nahi genuen udalbatza honetan EH-BILDUren iritzia aurkeztea kasu hontan Baleike eta Irabazirekin batera informazio hau Eider Mendozaren deklarazioak gazteleraz daude eldiario.es maiatzaren 31an irakurri nahi izanez gero, orduan garbi dago gaiak pibotatzen Parlamentuan eta udalean baina ez dugu onartuko iradokitzea ez dugunik harremanik gure talde parlamentarioekin eta noski de hecho mozioa hau eta aurkezten badugu da besteak beste usaintzen dugulako haizearen norabidea zein den.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Beste interbentziorik? Orduan bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (1) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz ez onartua

8.- IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, SALTZAILE IBILTARI PROFESIONALEN INGURUKO EGOERARI BURUZ.(2017SMOZ0030)

J.L MERINO (IRABAZI):

Espera un momento es que se ha liado Karmelo también bueno esta moción la vamos a retirar vamos a retirar o dejarla encima de la mesa para más adelante septiembre octubre cuando sea oportuno porque nos ha llegado información de que puede haber alguna modificación en la directiva Bolkenstein que es la que regula a los profesionales de la venta ambulante y muchas cosas más y parece que la modificación va ir en el sentido de sacarles fuera de esa directiva a los profesionales de venta ambulante por lo tanto no tiene ningún sentido ahora mismo debatir esta moción sin saber esos cambios. La vamos a dejar encima de la mesa.

MAHAI GAINEAN

9.- IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GIZARTE ETA INGURUMEN KLAUSULAK KONTRATAZIO PUBLIKORA GEHITZEARI BURUZ.(2017SMOZ0031)

Juan Luis Merino Sanabria Udal Taldearen Bozeramailea den IRABAZI-ARRASATE, eta Toki-korporazioen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiaren babespean, honakoa aurkezten du bere onarpenarentzat:

GIZARTE ETA INGURUMEN KLAUSULAK 'KONTRATAZIO PUBLIKORA GEHITZEKO MOZIOA Kontratazio publikoa administrazio publikoek herritarren ongizatea lortzeko erreminta nagusienetako bat da. Estatu Espainiaren BPGaren %15a baino gehiagokoa da bere pisu ekonomikoa.

Kontratazio publikoa botere publikoek bere oinarrizko helburu eta balioak lortzeko bere zerbitzura duten erreminta juridikoa izan daiteke: kohesio soziala, aberastasunaren banaketa, berdintasuna, justizia ... edo guztiz kontrakoa. Administrazio askotan eta baita kasu askotan ere gertatzen den bezala, kontratuak esleitzeko kontuan izan beharreko irizpideen artean,



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

prezioarenari arreta handiago jartzea enplegua suntsitu edo okertzea saihestu behar da, langileen baldintzak eta lan eskubideak zuzenean prekarizatuz.

Gure ikuspuntuaren arabera, udal administrazioen helburua kontratazio publiko estrategikoa, sostengarria eta gizartearekiko arduratsua lortzea izan behar du, zerbitzuen garatzean eta erosketa publikoen kalitatea, eraginkortasuna eta ingurugiroaren sostengarritasuna kontuan izan ditzala, baina baita ere zerbitzu emate horren edo enpleguaren beraren baldintzak negatiboki eragin ez ditzan.

Kontratazio publikoaren arau esparrua Kontratazio Publikoaren Direktiba berri baten onarpenaren ondoren aldatetak jasan ditu, (2014ko otsaileko 26eko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/UE Direktiba) esleipenerako irizpideen aplikazioan eragina baitu, gizarte, ingurugirorako edo berrikuntzarako irizpideak, esate baterako, hazkunde zentzuzkoa, sostengarria eta barneratzailea izateko 2020 Estrategia europarrak lehentasunezkoak kontsideratzen dituenak; kontratazio publikoak oinarrizko papera du hemen.

Direktiba beraren 90 Gogoetan, kontratuen esleipena gardentasuna, diskriminazio eza eta tratu berdintasuna bermatzen duten irizpide objektiboetan oinarritu behar dira, lizitatzailen balio erlatiboaren alderatze objektiboa ziurtatzeko asmoz, honela, zein eskaintza den ekonomikoki abantailatsuena, konpetentzia efektibo baldintzetan, zehazteko. Beste aldetik eta, 24/2014 kontratazio publikoari buruzko Europar Direktibak aitortzen duen bezala, arlo sozial edo sanitarioan herritarren zuzeneko zerbitzuetarako kontratueterako behar beharrezkoa da merkatuaren irizpidetatik ahalik eta urrunen tratatzea asetu behar diren beharren izate estrategikoarengatik eta, horregatik, kalitatearen perspektiba zorrotzetik eman behar dira.

Funtsezkoa da, horregatik, zerbitzu publikoen ematea eta erosketa publikoak kalitatezkoak, estrategikoak, sostengarriak eta gizartearekiko arduratsuak izatea eta baloratzeko irizpide bat baino gehiago hartzen denean kontuan preziorik baxuenarena derrigorrezkoa izatea eten dadin. Era honetan, lehen aipatu den bezala, kontratazio publikoa lanaren arloan eragin negatiboa izatea saihestu daiteke.

Gure apusturik garrantzitsuenak zerbitzu publikoen bermunizipalizazioa da. Egia da ere, zerbitzua azpikontratatzan den bitartean, zerbitzuaren ematea eta kalitatezko erosketa publikoa bermatzea funtsezkoa dela, hortaz, irizpide sozialen sarrera areagotzen egin beharko dugu lan.

Horregatik aurkezpen dugu hurrengo

MOZIO ARRUNTA

1. Arrasateko udaleko osoko bilkurak udal gobernuari hiru hilabeteko epean 2016an zehar udalak burututako kontratazioetan gizarte, lan, ingurugiro, etiko, linguistiko eta berdintasun klausulak eransteke txosten bat egitea premiatzen du, aipatutako irizpideak betetzen ez dituzten kontratuak ez luzatzeko aukera baloratzeko.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Gai honen inguruan lehenik eta behin esatea gardentasunaren baita noski Merino jauna zure eskubide osoa da udal honi informazio eskatzea dauzkagun kontratuen baitan baita ere izan genuen eta baita esatea ere uste dut zuek aurkeztu Urizar jauna zuen taldeak ere aurkeztu zenutela horrelako antzerako mozioaren bat eta pixkat orduan esan genuen harira ere bueno behin eta berriz esatea aurreko legealditik 2014tik udal gobernuak horrela onartuta hau da klausula horiek soziala, medioambietala eta bermatuak daude udaletxe honetan aurreko legealditik horrela bermatuta horrela jarraitzen dugu bermatuak daude, hau da, Arrasateko udaletxeak egiten dituen kontratu guztietan legearen baitan eginak daude, hau da, Eusko Jaurlaritzak markatzen ditu legedi bat eta legedia guztiz betetzen da kontratu guztietan orduan ondo deritzot informazio hori eskatzea uste dut agian berriz askotan aipatzen dugun bezala uste dut gai hau batzordeko gai bat dela, uste dut dagokion batzordeetan gai honen inguruan informazio eskatu daitekeela hau da segun eta ze batzorderi dagokion kontratuak batzorde horietatik pliego horiek aurkezten dira, pliego horietan klausula hauen inguruan ere analisi tekniko bat egoten da eta batzordeak onartzen ditu eta uste dut hor batzordean dela alde batetik lekua informazio gehigarria eskatzeko eta aspektu puntual baten inguruan zerbait eztabaidatu nahi bada uste dut baita ere batzordeak direla aproposak bai batzorde bakoitzak non kontratazio eta pliego horiek eramaten diren eta bertan batzordeak onartzen dituen berriz dinot eta baita ere kontratazio mahaietan behin eta berriz esaten dugu guztiz zabalik direla badakit egoten zaretela beraz uste dugu gai hau informazio eskaera hau uste dut horrela eskatuta dagoela informazio eskaera gisa gero balorazio bat egiteko ze gainera balorazio bat eskatzen omen da, uste dugu aproposena dela berriz dinot moduan batzordeetan eskatzea. Besterik ez. Mila esker.

J.L MERINO (IRABAZI):

Podía haber sido en comisión efectivamente, pero lo hemos querido traer a este pleno para que toda la ciudadanía tenga constancia que se está pidiendo un informe el cual no se nos ha dado nunca no sé si existe una instrucción no me mires así porque la propia instrucción dice que se informara periódicamente a los órganos de gobierno si para los órganos de gobierno no a los demás pedimos transparencia, no pedimos nada más es un informe.

Otra cosa es que lo queréis dar y no lo hayáis dado porque tú dices que están garantizados lo dices tu que están dentro de la ley no me cabe ninguna duda que tiene que estar dentro de la ley pero las cláusulas sociales pues yo en muchos casos no tenga constancia de que puedan estar garantizadas

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentzionik?

E.BARBERENA (EH-BILDU):



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Bueno EH- Bilduk uste dau garrantzitsua dela bai klausula sozialen gaia eta bestelako klausulen gaia batez ere udalak eskaini beharreko zerbitzuak hirugarren baten bidez eskaintzen dienean garrantzitsua jakitea eta egiaztatu ahal izatea langileen lan baldintzak aproposak direla hizkuntza irizpideak gauzatzen direla, ingurumena aintzat hartzen dela jakin badakigu gaur egun klausula sozialak aplikatzen direla jada kontratu gehienetan Arrasaten eta baita ere gaia ez dela beti zehatza auzitegi-tako auziek eta jurisprudentziak oraindik ez dute guztiz finkatu gaia eta klausulak linboan geratzen dira baina horrek ezin gaitu utzi zuhurtasunez jokatzuz klausulak aintzat hartu gabe baita ere adibidez klausula linguistikoak ezartzen direla kontratuetan ingurumenezkoak batzuetan. Guk ulertzen dugu ez dela erraza beti zehaztea hau edota berdintasunezkoak.

Guk mozioan dugun zalantza epearena da EH-BILDUK nahiago luke informe hau egiteko epea luzeagoa balitz esaterako 6 hilabete eta horrela denbora gehiago izango luke udalak gauzak hobeto ikusi eta prestatzeko izan ere kontratuak luzatzea interesgarria da egiaztatzea enpresak aurrez ezarritako klausulak betetzen dituela eta aurrera begirako kontratuetan ondo legoke zehazten joatea ea nola den kontratu guztietan klausulak ezartzea ziurtasunez, proportzionaltasunez eta irmotasunez egon gara kontratazioarekin eta egia da gehienek badituzte klausula sozialak baina badira batzuk aurreko legealditik datozenak beste batzuk legealdi honetan egindako kontratuak non ez diren klausula sozialak ezartzen, esaterako, gizarte premiak antzeman eta etxeko suteei aurre egiteko kontratua, haurren kontseilua, ikastetxeen biolentzia matxistaren prebentzio proiektua, udal haurreskola zerbitzua, kirol ekintzak, TAO zerbitzua, Akei ingurumen jarraipena etab.

Badakigu hauei aurki tokatzen zaiela berriztea beste batzuk hurrengo urtean izango dira badakigu norabidea dela inportantea baina guk ere ikusten dugu nolabait Juan Luisek aipatu duen bezala plenoan hauxe lantzea eta gure zalantza bakarra da hori haber epe hori txostena egiteko luzatu ahal den eta hiru hilabete ordez 6 hilabete jartzea eta hori izango zen modua EH-BILDUK mozioa babesteko.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

J.L MERINO (IRABAZI):

No hay ningún problema en variar en vez en tres meses el informe en 6 meses viene ahora agosto y tal no hay ningún problema

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bueno nik bai gure dot gauza bat esatea eta zuri nahi dizut erantzun Juan Luis lehen esan duzunean gardentasuna, informazioa ze nik egia da pleno honetan behin baino gehiago aurpegiratu dizuedala kontratazio mahaietara ez zaretela etortzen ezta? Eta ze pasatzen da? nik pleno honetan esaten duzudanian kontratazio mahaietara ez zaretela etortzen justu hurrengo kontratazio mahai konbokatzen dugunean horretara bai etortzen zarete eta egiten duzute ahalegina eta eskertzen dizuet eta agian hurrengorako ere egiten duzue ahalegina eta eskertzen dizuet baina gero berriro ere ahaztu egiten zaizue



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

eta gero edukitzen duzue periodo luze bat kontratazio mahaira ez zaretela etortzen. Orduan informazio hau eduki nahi baldin baduzue informazioa hor daukazue, eskatu espedienteak hor daude eta ematen zaizue baina hombre eskertuko genuke etortzea eta Enekok esan duen bezala egia da guk lista bat daukagu ze kontratu dauzkagun martxan, zeintzuk daukaten klausula sozialak, zeintzuk ez lista hori gure webgunean dago baina egia da agian herritarrentzako gure webgunean lista hori topatzea ez dela hain erraza.

Orduan gardentasun horren baitan bai esatea prentsara bidaliko dugula lista sinplifikatua eta herritar guztiak enteratuko dira Arrasateko kontratuetan zeintzuk daukaten klausula sozialak eta zeintzuk ez. Besterik barik.

Mozioa bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	21	
Aldeko botoak:	10	EH-BILDU (7), BALEIKE (1) eta IRABAZI (1)
Kontrako botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez da onartzen.

10.- EH-BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA HOBETZEAREN ALDEKOA. (2017SMOZ0032)

Etkez etxeko laguntza zerbitzua hobetzearen aldeko

MOZIOA

Etkez etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) izaera sozialeko zerbitzu publikoa da bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntzeko helburua duena.

2015ean 4.843 pertsona artatu zituen zerbitzuak. horietatik 1.344 gizonezko eta 3.499 emakumezko; % 30 autonomia zen eta gainontzeko % 70 mendekotasun egoeran zegoen.

Tradizionalki, familiaren barruan geratu izan da pertsonen zainketaren ardura, bereziki emakumezkoen eskuetan, generoak eragindako ezberdintasunak oraindik gehiago areagotzea ekarri duelarik.

Gure politiken ardatzean pertsona jartzen dugunez, zainketaren garrantzia modu berezian azpimarratu behar dugu, baina pentsatzen dugu zainketa hori, nagusiki, erantzukizun publikokoa izan behar dela, zainketaren esparru familiarra gutxietsi gabe.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

2005ean Foru Aldundiak lankidetza hitzarmenak sinatu zituen lurraldeko udalekin ELZaren eskuordetze eta kudeaketa mandatuak bideratzeko mendekotasun egoeran zeuden pertsonen zerbitzua eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketaren arabera (mendekoak aldundientzat, autonomoak udalentzat).

Beraz, orain arte, zerbitzua udal araudien bidez antolatu eta arautu bada ere, Foru Aldundiak finantzaketaren zatirik handiena bermatu izan du, zehazki % 70. Ondorioz, esan genezake ELZ administrazio ezberdinek parte hartzen duten gizarte baliabide garrantzitsu bat dela.

12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketa aldatu egin zuen. Horrela, 22. artikuluan Lehen Mailako Arreta Zerbitzutzat jotzen da ELZ: eta, aldi berean, 27. artikuluan ezartzen da Lehen Mailako Arretako zerbitzu horiek udalei dagokiela eskaintzea eta betetzea, telelaguntza zerbitzua izan ezik.

Eskumen banaketa hori gauzatzeko epeari dagokionez, legaren bigarren xedapen iragankorrak urtebeteko epea ezartzen du. Hala ere, hirugarren xedapen iragankorrak beste bi betebeharrak ezartzen ditu:

Batetik, eskumen banaketaren ondorioz beharrezko finantza doiketa egitea herri administrazioen artean "finantzaketa nahikorik bermatzeko.

Bestetik, eskumen banaketa eta finantza doiketa berriak ezin duela ekarri zerbitzuaren intentsitatea eta estaldura jaistea.

Legean aurreikusitakoari jarraituz, 2015eko urrian onartu zuen Jaurlaritzak zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 dekretua. Bertan honela definitzen da ELZ:

"Laguntza eta prebentzio izaerako zerbitzu bat da, eta mendekotasun egoeran edo mendetasun arriskuan dagoen erabiltzaileari bere bizilekuan jarraitzen laguntzea, bizilekuan bertan moldatzeko eta ingurune komunitarioan integratzeko aukera emango dion etxeko arretarako eta arreta pertsonalerako laguntza bat eskaintzea eta, era horretan, isolamendu egoerak saihestea du xede. Arreta pertsonala jasotzen dutenek edo mendetasun arriskuan daudenek soilik lortu ahal izango dute etxeko arreta."

2016ko apirilaren 7an Eusko Legebiltzarrak Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legea onartu zuen. Udalen lege berriaren etengabe honako kezka hau agertzen da: udalei eskumenen bat esleitzen edo transferitzen baldin bazaie eskumen hori benetan egikaritu ahal izateko beharrezkoa den finantzaketarekin joan beharko dela: eta 4. zein 21. artikuluetan horrela jasotzen da.

Baina udalen legeak aurreikusten ditu ere atzera begirako egoerak. Eta honela jasotzen da lehenengo xedapen iragankorrean:

"... udalerriek eutsi egingo diete lege hau indarrean sartzen den arte indarrean dagoen legeriak eta dagokien finantziarioa daukaten eskumenak" [sic].



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Eta bederatzigarren xedapen iragankorrean:

"Lege honen aurretik onartutako sektore-legeen edo foru-arauen erregalamendu bidezko garapenak berekin badakar udalerriei propirotzat esleitutako eskumenetik datozen zerbitzuak, jarduerak edo prestazioak zehaztea, finantzaketa egokia izan beharko du, nahitaez."

Ondorioz, argi geratzen da ELZ legezko eskumenei dagokienez, udal zerbitzua izan arren, ezin zaiela udalei transferitu, zerbitzua bermatzeak eskatzen duen finantzaketa doiketaren gainean adostasunik egon gabe.

Kezkatuta gaude Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren eboluzioarekin, datuek erakusten baitigute zerbitzua gainbeheran doala, poliki poliki, baina etengabe.

Ikus dezagun Gipuzkoako udalek eskainitako ordu kopurua (mendekoak eta autonomoak batera) azken 5 urteetan:

2012	2013	2014	2015	2016
1.259.041	1.216.426	1.195.103	1.170.996	1.148.264

Epe horretan eskainitako ordu kopuruen galera % 8,8koa izan da.

Eboluzioa aztertzeke beste datu interesgarri bat izan daiteke Foru Aldundiak baimendutako orduetatik (mendekoentzat) zenbat erabili dituzten Gipuzkoako udalek epe horretan eta portzentaian.

2012-2016 baimendutako orduak: 1.275.010 ordu. Udalek ordu horietatik erabilitakoak:

2012	2013	2014	2015	2016
% 78,5	% 74,4	% 71,8	% 70,3	% 68,3

Gainbehera begi bistakoa da.

Azkenik, bereizten baditugu autonomoen eta mendekoen artean, ikusiko dugu zehazkiago zein den bi profil horiei eskainitako orduen eboluzioa:

	2012	2013	2014	2015	2016
Autonomoak	258.028	267.896	279.525	274.096	277.440
Mendekoak	1.001.013	948.530	915.578	896.899	870.824

Datuek erakusten digute gainbehera mendekotasunean dagoela, azken bost urteotan orduen galera % 13koa izan baita, autonomoen kasuan, berriz, igoera % 7,5koa izan den bitartean.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Gure ustez ELZ bidegurutzean dago bi arrazoirengatik: alde batetik, ELZk berak dituen barne arazoengatik; eta, beste alde batetik, ELZren finantzaketaren gainean dauden zalantzenengatik.

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuak ekarpen garrantzitsuak egin dizkio gure babes sistemari, esaterako:

Pertsona bere inguru naturalean bizitzen jarraitu ahal izatea ahalbidetzen du.

Pertsona zaintzaileei laguntza eskaintzen die.

Sektore feminizatu batean enplegu duina sustatzen du, erregulatu gabeko zainketaren merkatuaren aurrean.

Presioa jaisten laguntzen du administrazio publikoarentzat garestiagoak diren beste zerbitzu batzuen gainean, hala nola egoitza zerbitzuen gainean, itxaron zerrenda arazo larria dutenak.

Eta garrantzitsuena, gizarte zerbitzuetara sarbide bezala funtzionatzen du, beste arazo eta problematika batzuk detektatzen laguntzen duelako.

Baina ELZk arazoak ere baditu, adibidez:

Gaur egun soilik adineko pertsonengan zentratuta dago eta ez bestelako kasuetan, buru gaixotasunak edo desgaitasuna, kasu. Intentsitate, ordutegi eta zerbitzu egunei dagokienean dauden mugak.

Kopagoa, oro har, altua da: eta, beraz, ez da lehiakorra erregulatu gabeko zerbitzu pribatuaren aurrean.

Baliabide ezberdinen arteko lehia (ad. mendekotasun prestazioekin).

Gipuzkoako lan hitzarmen baten falta, eta langileen lan baldintzak kopagoari lotuegi egotea.

Arestian esandako guztiarengatik, **herrialde mailako akordio politiko** zabala eratzea proposatzen dugu, lege ezberdinek aurreikusten duten finantza doiketa burutzen ez den bitartean.

Akordio politikoa proposatzen dugu herritarrengandik gertuen dauden bi administrazio publikoen artean, alegia, lurraldeko **udalen eta Foru Aldundiaren artean**.

Akordioaren **xedea** zera da: pertsonaren zainketarako eta bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko hain beharrezkoa den **zerbitzua indartzea eta hobetzea**, konbentziturik baikaude horrek onura besterik ez diola ekarriko gizarte osoari, pertsonen zainketa hobetzeak gizarte osoaren ongizatea hobetzen duelako.

Mahai gainean jartzen dugun akordio proposamena honako **bi konpromiso** hauetan oinarritzen da:



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

1.- Foru Aldundiaren aldetik, gaur egun **Aldundiak** udalei baimentzen dien ordu kopuruan eta ordu horiei dagokien **finantzaketan murrizketarik ez ezartzeko konpromisoa**.

2.- Udalen aldetik, gaur egun udalek zerbitzura bideratzen duten **diru ekarpena handitzeko konpromisoa**.

- Zerbitzuaren intentsitatea, ordutegia eta zerbitzu egunak zabalduz.
- Langileei lan baldintza duinak bermatuz.
- Zerbitzua beste esparru batzuetara zabaltzeko aukera aztertuz.

Mozio proposamena

1.- Arrasateko Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua pertsonaren zaintzarako ezinbesteko zerbitzua dela aldarrikatzen dute, besteak beste, pertsona bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko bermatzen laguntzen duelako.

2.- Arrasateko Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren garapen zein hobekuntzaren aldeko aldarria egiten du.

3.- Arrasateko Udalak Foru Aldundiari dei egiten dio udalekin ados dezala honako konpromiso bikoitza:

Aldundiaren aldetik, udalei baimentzen dien ordu kopuruan eta ordu horiei dagokien finantzaketan murrizketarik ez ezartzeko konpromisoa.

Udalen aldetik, zerbitzua hobetzeko eta zabaltzeko neurriak aztertu eta ezartzeko konpromisoa; halaber, langileei lan baldintza duinak bermatzekoa.

I.ARTOLA(EH-BILDU):

Arratsaldeon denoi. Ukaezina da etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabilera gainbehera doala mozio proposamenean jasotako datuak ezin argiagoak dira baina gainbehera horren arrazoia ez da zerbitzuaren behar soziala jaitsi izana ez baita jaitsi.

Are gehiago aurrera begira arrazoi demografikoak tarteko igotzeko igo daitekeela aurreikusi daiteke baizik eta gaur egungo ezaugarriekin ez diolako erantzuten erabiltzaileen premiei eta aukerei eta izaera sozialeko zerbitzu publiko izanik gure erantzukizuna da gabezia horri konponbidea ematea pertsonen zaintza oinarri-oinarrizko balorea delako edozein jendarteetan.

Hori horrela izanda etxez etxeko laguntza zerbitzuak goitik beherako berrikuspen bat behar du berrikusi behar da zerbitzuak jasotzen dutenen perfila adinaz haratago beste mendekotasun edo ezgaitasun batzuk dituzten herritarrak aintzat hartuz berrikusi behar da zerbitzua erabiltzeko dauden mugak intentsitatea, ordutegia etab. Dagokionez eta berrikusi behar da finantzazioa eta batez ere kopago erregulatu beharreko zerbitzu pribatua indartzea dakarrelako etab.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Eta mozio honekin horren aldeko apustua egitea proposatzen dizuegu azken baten zerbitzu publiko duin baten aldeko apustua egitea eta apustu horretatik abiatuta Gipuzkoako Foru Aldundiari akordio politiko zabal batera proposamena luzatzea.

Zerbitzua indartu eta hobetzeko denon artean horretarako beharrezkoa ikusten dugu hasteko eta behin Gipuzkoako Foru Aldundia zerbitzuaren finantzaketan murrizketarik ez ezartzea eta horixe da gure lehenengo eskakizuna jakin badakigulako Aldundiak aparteko esfortzurik gabe egin dezakeela hori zergen bilketak izandako egoerari esker ahalmen ekonomikoa berreskuratzen ari delako adibidez iaz baino 18 milioi gehiago aurreikusi dutelako gizarte politikarako departamenturako 2017an.

Bestalde, gaia herrira ekarriz ez dago zalantzarik Arrasateko udalak ere bere alde dituela zerbitzua hobetzeko baldintza ekonomikoak iazko ekitaldiko diru kontuak utzitako soberakinak gogoratu bakarrik ez dago. Bueno lehen Anuska aipatu dituen 6 milioi horiek. Beraz, gure ustez borondate politikoa baina ez da behar zerbitzuari behar duen bultzada emateko. Beste egungo gainbehera aurreikusi dezakegu zein izango den etxeko zaintzaren etorkizuna: pribatizazioa, lanaren prekarizazioa eta gure herritarren ongizateko erantzule garen neurrian larriena dena mendekotasunagatik edo beste ezgaitasunagatik laguntza behar duten herritarren bizi kalitatea kolokan egotea

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentzionik?

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Egia esan, mozioaren zati handi batekin guztiz bat egin dezakegu Itxaro orain irakurri duzunarekin eske lehenengo zatiarekin guztiz bat egiten dugu, hau da, udal gobernu honek EAJ-PNVk guztiz derrigorrezkoa ikusten du Arrasateko udalak etxez etxeko laguntza zerbitzua bermatzea hori guztiz bidezkotzat eta derrigorrezkotzat dela bat gatoz zuekin, egia da, zuen mozioan aurkeztutako datuak ikusten da hauek dira mahai gainean dauden datuak eta bat gatoz egiten duzun irakurketarekin hein handi batean bat gatoz baina bai uste dugu EAJk uste du udal gobernu honek uste du hor irakurketa politiko bat egiten ari dela azkenaldian EH-BILDU gai honekin zergatik?

Badakit ezagutzen duzutela aurreko legealdian EH-BILDU diputazioan zegoenean EH-BILDUK berak aurkeztu zuen erderaz daukat plan de mejora de la atención a la dependencia en gipuzkoa 2013-2016 eta hor EH-BILDUK berak aurreikusten zuen murrizketa batzuek 2016an EAJ diputazioan sartu zenean alderdi sozialistekin batera lehenengo gauza egin genuena izan zen hau gelditu.

Eta zuek ondo dakizuten bezala duela urte bete edo gutxiago 8 bat hilabete bi lantalde osatu dira EAJ jarri ditu diputazioan jarri dira martxan bi lantalde, alde batetik finantziaketa erdua aztertzen duen lantalde politiko bat non alderdi guztiak egon gara EH-BILDU baita orain dela bi aste arte eta beste batzorde tekniko bat non zerbitzuaren nondik norakoak aztertzen diren, hor arrasateko udaletxeak ere partehartzen du. orduan gertatzen ari dena horregatik zuen irakurketa bat gatoz baina ez gatoz bat esaten duzuten murrizketa bat egiten ari dela mahai gainean momentu honetan dagoena



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

da finantzaketa eredu aldaketa bat, hau da, orain arte etxez etxeko dirulaguntza horiek baita jasaten zuen hein handi batetan diputazioak baina zahar egoitzak ondo dakizuten bezala horren kostua asumitzen zan konpetentzia osoa hartzen genuen udalak.

Orain zer da mahai gainean dagoena? Mahai gainean dagoena da diputazioak kabiaren bidez ondo dakizuten bezala zahar egoitzak hau da bere gain hartzen dituela eta Arrasateko zahar egoitzak ere bide hori eramango du eta etxez etxeko dirulaguntzak dakarren konpetentzia osoa eta horrekin baita errekursoak hor jarri beharreko errekursoak udalaren gain geratzen direla, hau da, irakurketa egin dezagun serioa irakurketa da finantzaketa eredu baten aldaketa baten aurrean gaudela eta orain dela bi aste arte EH-BILDU lantalde horietan zegoen eta orain murrizketa baten aurrean hitz egiten ari da eta ez gatoz bat zuekin uste dugu irakurketa hori ez dela aproposa bat gatoz zuekin etxez etxeko dirulaguntzak beharrezkoak dira bermatu behar ditugu udal honek konpetentzia gain hartzen duenean ze oraindik ere nahiz eta ia eskumena bidean egon ia udaletxerako bidean oraindik ere diputazioak dirulaguntza ematen du eta bermatu nahi duguna da arrasaten diruz etxez etxeko dirulaguntza horiek egongo direla eta haratago joango naiz gure ardura da eta gure konpromezua zerbitzu duin bat ematea errekursoak horretara bideratzea eta horretan bidelagun izango gaituzue eta eskuak zabaltzen dizuegu gai hau mahai gainean udalean benetan aztertu beharrean egoten garen momentuan gai hau mahai gainean jartzeko eta esango dizuet ELA sindikatuarekin aurreko astean bilera bat izan dugu eta beraiekin adostuta daukagu prest daukagula beraiekin akordioetara hitz egiteko hemen dauden langileen lan baldintzen inguruan hitz egiteko zerbitzuaren intentsitatea zerbitzuaren aspektu teknikoetaz hitz egiteko horregatik gure ardura da gure konpromezua etxez etxeko dirulaguntza hauek bermatzea dagokion behar diren errekursoak bertara bideratzea baina egin deigun irakurketa serio bat eta ez deigun gai honekin erabilpen politikorik egin baina berriz diot eskua luzatzen dizuegu gai hau udal honetara etortzen denean eta eskumenak guztiz udalarena den heinean zuekin gai hau partekatzeko. Mila esker.

I.URIZAR (BALEIKE):

Lehenik eta behin noski irakurketa politikoa dauela horretarako aurkeztu ginen hauteskundeetara ez bada horrela agian hobe gestoria bata edo aholkularitza bat zabaltzea behin eta berriz zabitze baloiak kanpora botatzen beste instantzia eta beste esparrua erreferiantziatzen Lege Biltzarra, Jaurlaritza, Aldundia goazen pixkat hori alde batera uzten eta udal mailan ze lanketa egin ahal dugun ikustera.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren gaia ikusten da ez dagoela oso egoera onean zerbitzua gainbehera hori datorrela egoera korapilatsua dela eta konplexutasunez betetakoa, gure taldetik saiatu gara behin baino gehiagotan gizarte ongizateko batzordean eztabaida mahai gainera ekartzen baina saileko arduradun politikoak beti atzeratu izan du lanketa eta eztabaida izateko proposamena.

Horrexegatik iruditzen zaigu EH-BILDUKo kideak aurkeztu duten mozioaren zentzua eta beharra ezin dela zalantzan jarri. 2018an suposatzen da Anuskak esan duen bezala Iturbide egoitza Kabian sartzin dela eta etxez etxeko laguntzaren eskumen guztiak udalarena izango direla eta ez badugu gai hori sendotasunez eta baita finantzaketa hartu eta lantzen zerbitzuak duen gainbehera okerrera joango da.



Esp.-kodea: 2017SAPL0006

Arrasateko nagusiek behar duten zerbitzua eta langileen merezi duten lan baldintzak bermatzeko gai honen gainean zerikusi duten eragile nagusiak elkartu eta azterketa sakon bat egitea ezinbestekoa da, guztion artean gure herriak behar duen eredia eraikitzeko eta ez bakarrik gobernu eta sindikatuen artean baizik eta mahai zabalagoa baten.

Horregatik eskatuko genioke EH-BILDUko kidea puntu bat atxikitzea ondorengo izango litzake:

Mahai bat eratzea sindikatu, teknikari eta alderdi politikoen artean arrasateko etxez etxeko laguntza zerbitzu eredia aztertu, landu eta adosteko guztien artean.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

I.ARTOLA (EH-BILDU):

